BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

484

EBAZPENA, 2015eko urtarrilaren 12koa, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearena, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2014ko uztailaren 23ko Aginduko diru-laguntzak esleitzeko ebazpena argitara emateko dena. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren agindu horren bitartez, publikoak ez diren artxiboak antolatzeko, hedatzeko eta digitalizatzeko diru-laguntzak banatzeko modua arautu zen.

Diru-laguntza publikoak emateko orduan publikotasun-printzipioa bete behar denez, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearen Ebazpena, onuradunen zerrenda, finantzatutako proiektuak eta emandako zenbatekoak adierazten dituena, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, interesdunei banan-banan jakinarazteaz gain, horrela xedatzen baita publikoak ez diren artxiboak antolatzeko, hedatzeko eta digitalizatzeko diru-laguntzak banatzeko modua arautzen duen Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2014ko uztailaren 23ko Aginduan.

Ondorioz, hauxe

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2014ko uztailaren 23ko Aginduaren babesean 2014ko ekitaldian emandako diru-laguntzen zerrenda Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea. Agindu horren bitartez, publikoak ez diren artxiboak antolatzeko, hedatzeko eta digitalizatzeko diru-laguntzak banatzeko modua arautu zen.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko urtarrilaren 12a.

Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordea,
JOSÉ ÁNGEL MARÍA MUÑOZ OTAEGI.

ERANSKINA

Onuraduna	Proiektua	Zenbatekoa
Ahoa (Ahozko Historiaren Artxiboa)	Ikus ondarea zaintzea eta frankismoko eta trantsizioko ahozko iturriak biltzea.	6.000
Eusko Ikaskuntza	Eusko Ikaskuntzaren artxibo dokumentala (1918-1936): katalogazioa, digitalizazioa eta hedapena.	6.000
Eusko Ikaskuntzaren Euskomedia Fundazioa.	Manuel Irujo funtsa: katalogazioa, digitalizazioa eta hedapena.	7.000
Jose Miguel de Barandiaran Fundazioa	Jose Miguel de Barandiaran Fundazioaren artxibo dokumentala (1891-1991): katalogazioa eta digitalizazioa. (2. fasea: etnografia-antropologia).	7.000
Gipuzkoako Ozeanografia Fundazioa	Katalogazioa eta sailkatzea: 1.- Funtsa «Salvamento humanitario de Salvamentos Marítimos de Gipuzkoa». II.- Gipuzkoako Ozeanografia Fundazioaren Elkartearen dokumentu-funtsa.	5.000
Euskal Ikasketetarako Fundazio Popularra	Tirso de Olazabal funtsa digitalizatzea.	20.000
Ramon Rubial Fundazioa	I.- Ramón Rubial Cavia Artxiboa. II.- Ramón Rubial Fundazioaren Artxiboa. II.- José Antonio Maturana dokumentu-bilduma.	5.000
Sancho el Sabio Fundazioa (1. programa)	Ampuero familiaren Artxiboa antolatzen bukatzea.	10.000
Sancho el Sabio Fundazioa (2. programa)	Ampuero familiaren Artxiboa digitalizatzea.	5.000
Gipuzkoako Abokatuen Elkargo Prestua	Alberto Martinez Elorriaga (1943-1982) dekanoak osatutako dokumentu funtsa. Bergarako Abokatuen Elkargoaren akta-liburua (1841) eta Batzar Nagusien hainbat akta-liburu (1907-1931).	5.000
Jose Unanue Fundazioa	Frankismoan zehar langileei egindako elkarrizketen minutuz minutuko transkripzioa.	5.000
Lenbur Fundazioa	Enpresa funtsak antolatzea eta katalogatzea.	5.000
Berrizko Mesedetako Misiolariak. Vera Cruz komentua	Komentuko artxiboa antolatzea.	6.000
Loiolako Santutegia. Jesusen Lagundia SJ. (1. programa)	Komentuko artxiboa antolatzea.	9.000
Loiolako Santutegia. Jesusen Lagundia SJ. (2. programa)	Artxibo historikoa. Jesusen Lagundiko historiaren funtsa: kanporatzea, ezabatzea eta berrezarkuntza S.I., XVIII. mendearen lehen erdiko eta XIX. hasierako dokumentuen hustuketa.	14.000
Loiolako Santutegia. Jesusen Lagundia SJ. (1. Programa)	Funts historikoak digitalizatzea: Beristain, Echeverria, Olano… familia artxiboak (5. fasea).	20.000
Aranzadi Zientzia Elkartea	Elosegi funtsa: Jesus Elosegi Irazustaren egunkariak digitalizatzea (2. fasea).	4.000
Luis María de Zavala y Fernández de Heredia. (1. programa)	Euskadiko familia artxiboak berreskuratzea: Acedo-Inarra familiaren artxiboa antolatzea eta deskribatzea.	16.000
Luis María de Zavala y Fernández de Heredia. (2. programa)	Iturri dokumentalak prestatzea digitalizatzeko eta webgunean hedatzeko. Olaso-Ulibarri familiaren gutun-liburuaren transkripzioa eta edizioa bukatzea.	15.000
GUZTIRA		170.000